




## Gipuzkoa eta Bizkaiairen arteko mugan



Ermua Bizkaian dago, Ego ibaiaren ertzean, Irumugarre eta Urko mendien **magalean**, Eibartik oso gertu. Bi herri hauek eta beste hainbat Debabarrena **bailaran** daude. Ermuak egun ez ditu 18.000 biztanle, garai batean izan bazituen ere, eta %16 inguru dira euskaldun. Herriko **jarduera** nagusia industria da. Ermuar askok Eibarko fabriketan egiten du behar. Ermuan ere gehienak bigarren sektorean dabilta lanean, eta ia herena hirugarrenean.

**E**rmura joateko bi errepide nagusi erabiltzen dira, A-8a eta N-634a. Hara joateko jarri duten azken garraio-zerbitzua aurten jarri dute: Ondarroatik irten eta Ermuraino doan autobusa, hain zuzen ere. Euskotrenek ere badu **gelto-  
kia** Ermuan.

Ermua da herriaren izena, baina baita bertako zine-aretoarena ere. Aurten Euskara Elkartearen federazioak, Topaguneak zinema-zirkuitua antolatu du hainbat film labur **beste hainbat herritan** ikusteko, tartean Ermuan. Udaberrian, berriz, antzezlan arrakastatsu bat ikusteko parada izan zuten: "Algunas chicas cruzan las piernas mientras hablan".

Neskak aipatu baititugu, esan aurten Ermuko Emakumearen Batzordeak bertako bost kirolariren irudiak **baliatu** dituela herriko mutil gazteek **etxeko lanak** egitera animatzeko. Bost kirolari horien artean **ezagunenak** hiru dira, Pedro Horri-  
llo eta Igor Astarloa txirrindulariak, eta Joseba Arriaga, Athletic-eko jokalaria. Gainera, Igor Astarloak izugarrizko poza eman zien iaz Munduko Txapelketa irabazi zuenean eta horregatik oso maitatua da herrian.

Ermuak kanpotik etorritako biztanle asko hartu ditu. Hori dela eta, Ermua da etorkinentzat HABEk propio prestatutako Aisa ikas-materiala erabiliz "harrera-ikastaroak" antolatu dituen udaletako bat. Eta ermuar batzuek hartu dute parte ikastaro horietan.

### Ermuko ondarea

Ermuak badu **ondare** aipagarriarik. Hala nola, Lobiano jauregi errenazentista, XVI. mende bukaerakoa, edo monumentu izendatuta dagoen Valdespina jauregia; udaletxea bertan dago. Herriko eliza, berriz, Santiago apostoluari eskainia dago.

Eta herriko **areto-futboleko** taldearen izena ere santuarekin du **zerikusia**, Santixauak izena baitu. Santiotan ospatzen dituzte herriko festak ere. Oso ezaguna da herriko koadrilek, txaranga eta guzti, antolatzen duten paella-jana. Uztailaren 27an ere badute beste **jaiegun** bat lan-egutegian gorritz markatuta: Zezen eguna. Baina, festa hori ez da hain ezaguna ermuarrak ez direnentzat.

Ezezaguna da, baita ere, Daniel Txopitea pintore eskultorea (Ermua 1950 – Zarautz 1997). Berriki **atzera begirako** bat eskaini dio banketxe batek Bilbon. Txopitea Zarautzen bizi zen, Jorge Oteiza bezala. Oteizak *Txopitea eta Pakea* izeneko eskultura egin zuen 1988an. Eibarren dago, Ermutik oso gertu beraz.

### Nola iritsi?

A-8a edo aipatutako beste edozein bide hartzen baduzue, Eibarra eta Ermura iritsiko zarete. Askok uste baino ederragoa da Debabarrena inguru hori guztia, denetik baitu, itsasoa eta mendia. Eta Durangaldea ere izugarri ederra da, eta bertan dago. ■

# Euskalkiak

## Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko muga

31

### Kasu! Ermua, baina Ermuko

“A” itsatsia duten herri eta herrialdeen izen bereziak direla eta, askotan sortzen zaizkigu zalantzak lekuzko kasuetan.

Hiru sail daude:

- “a” itsatsita dutenak**, alde batetik. Hauek kasu guztietan gorde behar dute “a” hori. Adb.: Gipuzkoa, Nafarroa, Zuberoa; Alegia, Ondarroa... *Deklinatzeko garaian: Nafarroako, Nafarroatik, Nafarroara...*
- a artikulua dutenak**, bestetik. Euskal leku-izen batzuk izen arrunt modura deklinatzen dira lekuzko kasu batzuetan (nongo, nora, norantz, noraino, nondik). Antza denez, -a letraz amaitzen diren hainbat herriren izenak **jatorriz izen arruntak** ziren eta denboraz berezi bilakatu dira, baina beren deklinabidean izen arrunt bezala jokatzen dute. Adb.: **Ermua**, Euskal Herria, Bizkaia, Nafarroa Beherea; Iruñea... *Deklinatzeko garaian: Iruñea, Iruñean, Iruñera, Iruñetik, Iruñeko...*



Beraz: Ermua...

*Zalantzarik sortu bazaizu, ikus 46. or.*

- “a” itsatsirik gabekoak**. Erdarazko toponimian bukaerako “a”rekin ikusten ditugulako sortzen da nahasketa. Hauek, baina, euskaraz ez dute inolako “a”rik behar. Adb.: Altsasu, Aulesti, Legazpi... *Deklinatzeko garaian: Urretxun, Urretxutik, Urretxura, Urretxuko...*

**ARETO-FUTBOLA.-** Fútbol-sala. Football en salle.  
**ATZERA BEGIRAKO.-** Retrospectiva. Rétrospectif/ive.  
**BAILARA.-** Comarca. Région.  
**BALIATU.-** Utilizar. Utiliser.  
**BESTE HAINBAT HERRITAN.-** En otros tantos pueblos.  
 En autant d'autres peuples.  
**ETXEKO LAN.-** Labores domésticas. Les travaux de la maison.  
**EZAGUN.-** Conocido/a. Connu/e.  
**GELTOKI.-** Estación. Gare.  
**JAIEGUN.-** Día festivo. Jour de fête.  
**JARDUERA.-** Actividad. Activité.  
**MAGAL.-** Falda. Flanc.  
**ONDARE.-** Patrimonio. Patrimoine.  
**ZERIKUSI.-** Relación. Relation.



euskadiirrati

Ermua herriari buruz  
 zer bait gehiago jakin  
 nahi duenak, jo dezala  
 HABE @Idizkarira  
 (www.habe.org/likaslearen-  
 gunea), bertan aurkituko  
 baitu Euskadi Irratiak egindako  
 erreportajea entzungai.

### ERMuko euskara

#### Ibon Egaña

Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko muga, Bizkaiko azken herria da Ermua eta mugakide ditu Eibar eta Mallabia. Hizkeraz ere mugakoa da Ermua, izan ere, bizkaieraren barruan, Durangaldeko eta Deba ibarreko euskararen arteko muga-muga kokatzen da bertako euskara, bateko nahiz besteko ezaugarriak dituela. Nolanahi ere, mendebaldeko euskara edo bizkaiera da, zalantzarik gabe, bertako euskalkia.

- Fonetika eta fonologiaren esparruan, honatx aipatzeko moduko ezaugarriak:  
 —Bizkaieraz gertatu ohi denez, /s/ eta /z/-ren arteko oposizioa galdu da, /s/-ren mesedetan: *sinean* (zine-man), *sian* (ziren)...  
 —/i/ bokalaren osteko bustidura automatikoak hedadura handia hartzen du: *etorritxa* (etorrita), *itxen* (egiten)...  
 —diptongoek soiltzeko joera dute: *berrogetamar* (berrogeita hamar)  
 —/i/ amaieradun hitzei mugatzailea eranstea, /x/ hotsa tartekatzen da: *begixak* (begiak), *belarrixak* (belarriak)...
- Morfologiaren esparruan, ezaugarri azpimarragarrienak hauek dira:  
 —Erakusleetan, plural hurbila erabiltzen da, bizkaieran ohi denez, *-ok* atzizkiaren bidez: *seuok erritxarrok* (zeuok herritarrok)...  
 —Gaztelaniazko *-ado* partizipio amaierak *-au* eman du Ermuko euskarari: *tapauta* (tapatuta), *bajau* (bajatu, jaitzi)...  
 —Bizkaiera gehienez erabiltzen diren *-gaz* eta *-kaz* atzizkien ordez, *-kin* erabiltzen dute Ermuan soziati-boa markatzeko, Deba ibarrean bezala: *umiakin* (umeeekin), *alkarrekin* (elkarrekin), *urtiakin* (urtee-kin)...  
 —Erakusleek forma bereziak hartzen dituzte: *orrek gausak* (gauza horiek).  
 —Aditza bizkaierarena da erabat: *urtetzen dogu* (irriten gara), *esaostan* (esan zidan), *egoan* (zegoen)...
- Aldaera lexiko eta hitz bereizgarrien artean, esanguratsuak: *amazortzi* (hemezortzi), *alkar* (elkar), *jente* (jende), *eskuma* (eskuin), *dana* (dena).